

# **AITZINEUSKARA ZAHARRAREN INBENTARIO FONOLOGIKOAZ**

**Egilea:** Alazne Begiristain Iparragirre

**Tutorea:** Joseba Andoni Lakarra Andrinua

**Euskal Ikasketetako Gradua (2014/2015)**

**Euskal Diakroniako Gaiak**

## ABSTRACT

Lan diakroniko honetan, AEM-renaz bestelako AEZren inbentario fonologiko baten beharra aldarrikatu eta proposatzeaz gain, Mitxelenaren sistema kronologikoki ez ezik metodologikoki ere gainditu daitekeela argudiatu nahi dugu. Hau burutzeko, Lakarraren (1995) CVC erro-monosilabikoaren proposamenetik abiatuko gara, hau izan baita beste alderdi batzuekin batera lortu den aitzineuskararik zaharrenaren fonologiari begiratu txiki bat emateko atea zabaltzeko dizkiguna. Mitxelenaren sistemaren gainean egingo ditugun gogoetei eta hauen bidez azaleratu hainbat ahulgunei erantzun bat emateko saiakera bere teoria honetan oinarrituko da, eta honi Sagart (1999) eta Baxter & Sagarten (2014) bidetik begiratuko diogu, hots; saiatuko gara ikuspuntu berri batetik Mitxelenaren sistemaren historiaurrea eraikitzeko fonologiatik abiatu beharrean morfologiatik abiatuz.

Horretarako, lehenik eta behin euskal diakronian estandarra den Mitxelenaren erronbo sistemaren gainean arituko gara, proposamenari berari ez ezik honen oinarriari begiratuko diegu zehatzago, bertatik atera litezkeen ahulgune eta arazo zenbait azaleraraziz eta hauen inguruan argudiatuz. Arazo hauen artean dugu nagusiki jada aipaturiko sistemaren oinarria bera, hau da, neutralizazioaren izaera eta kontzeptua. Sistemaren itxurazko batasunaren gainean ere arituko gara, bai ezaugarri fonetikoei eta baita kronologiari dagokienez.

Ondoren, Lakarraren (1995)ko egitura kanonikoa zertan datzan erakutsi eta honek hizkuntzaren berreraiketan izan dituen hainbat ondorio inplizitu eta ezplizituri begiratuko diegu, AEZren ezaugarri morfologikoak azaldu eta honek litzuzkeen ondorioak fonologiara zabaltzeko. Horrela, Lakarrak berak proposatzen duen AEZrako sistema eta inbentario fonologikoa aurkeztuko ditugu.

Guzti hau kontuan hartuta, Lakarraren AEZ zaharretik Mitxelenaren erronbo sistemara, edo bestela esan, monosilabismotik bisilabismora hizkuntzak eginiko bidea laburki azaltzen saiatuko gara, fonema inbentarioaren bikoiztasunari hitz-eraketa bidezko arrazoi morfologikoak emanez.

Azkenik, saiatuko gara lanaren hasiera aldean planteatu ditugun Mitxelenaren sistemarekiko zalantza, arazo eta ahulguneei erantzuna ematen, azaltzen edo bertatik ondorio emankorrak ateratzen. Ikusiko saiakera txiki honek nora eraman gaitzakeen.

## AURKIBIDEA

<b>1. SARRERA .....</b>	<b>4</b>
<b>2. MITXELENAREN SISTEMA ESTANDARRAZ .....</b>	<b>5</b>
2.1. Mitxelenaren sistema.....	5
2.2. Sistemaren gaineko hausnarketak .....	8
2.2.1. Hitz-hasiera eta amaierako neutralizazioak ez dira garaikide; ahulen arrastoak hitz-bukaeran. ....	8
2.2.2. Neutralizazioa ote? .....	11
2.2.3. Kontsonante sailen arteko oposaketa berdina izateko oso desberdinak dira oposaketa-motak beraien artean. ....	13
<b>3. BERRERAIKETA BERRIA ETA HONEN BIDEZKO SISTEMA ESTANDARRAREN BERRAZTERKETA .....</b>	<b>15</b>
3.1. Lakarraren (1995) CVC forma kanonikoa .....	17
3.1.1. Aurreko azterketak .....	17
3.1.2. Lakarra (1995).....	18
3.1.3. Forma kanonikoaren ezarpenaren zenbait inplikazio .....	18
3.2. Morfologia bidezko berreraiketarantz: .....	21
3.2.1. Monosilabismotik bisilabismora: bortitzen historiaurreaz.....	21
3.2.2. Eredu aldaketa: AEZtik erronbora .....	22
3.2.3. Morfologia bisilabikoak fonologia monosilabikoan eragindakoa: bortitzen sorreraren morfologia bidezko azalpena .....	23
<b>4. SISTEMA ESTANDARREAN AURKITU AHULGUNEEN INGURUKO BIGARREN GOGOETA .....</b>	<b>24</b>
4.1. Hitz-hasiera vs. hitz-amaieraren garaikidetasun eza .....	25
4.2. Neutralizazioa ote?.....	26
4.3. Kontsonante sailen arteko oposaketa berdina izateko oso desberdinak dira oposaketa-motak beraien artean. ....	27
<b>5. ONDORIOAK .....</b>	<b>29</b>
<b>6. BIBLIOGRAFIA.....</b>	<b>32</b>

## 1. SARRERA

Lehenik eta behin, edukiei heldu aurretik, lan diakroniko baten aurrean garela argi utzi nahiko genuke, eta lan diakroniko bezala, zientzia honen arauak jarraitzen eta zientzia honek baldintzatutako erabakiak hartzen saiatuko gara une oro. Ondorioz, bertan erabiliko den metodologia, adierazpideak eta kontzeptuak funtsean diakroniari lotuak izango dira, ez sinkroniari begirakoak, eta honek bere ondorioak izango ditu bai gogoetak bideratzeko orduan eta baita emaitzak lortzeko orduan ere.

Gure helburua ez da atal honetan berreraiketaren inguruko teorizazioa bultzatzea, baina berreraiketa gure lanaren bihotz eta ardatz izango dugulako, aberasgarri izan liteke hona gaiaren gaineko hausnarketatxo bat ekartzea, lanean jarraituko dugun planteamendua hobeto uler dadin.

Euskararen azterketan, bokalismoari dagokionean adibidez, garrantzi handia hartu izan du hitz-hasierako *i/u* alternantzien gaiak. Alternantzia hau euskalki desberdinetan sakabanaturik egon izan da lehen lekukotasunetik, eta honen zergatiaren bila, seigarren bokal baten proposatzearen beharra azaleratu zuten zenbaitek (Txillardegik kasurako, (1980: 36), cf. Lakarra 2014). Azaltzeko beste biderik ikusten ez zutenek, leku batzuetan *i* eta beste batzuetan *u* eman duen "tarteko" bokal bat edo, gaur egunera arte heldu ez zaiguna berreraikitzearen alde egin zuten. Hala ere, mekanikotasunak horretara bultzatzen bazuen ere, Mitxelenaren apustua ez zen 6. bokal hori berreraikitzea. Tentu gehiagoz, bokal berri horren behararen inguruko ziurtasunik ez zuela eta, saiatu zen alternantziadun kasu bakoitza banan-banan azaltzen (1961/1977: 479-481). Horren ordez, alternantzia hauetariko batzuen sorburuan egon litekeen diptongo bat proposatu zuen, *eu-* (1961/1977: 479-480) eta horrela, ez da AErako unitate berri eta ezezagun bat gehiago berreraikitze beharrik.

Mitxelenaren erabakia eta ondorengoena, maisuak berak *Lenguas y Protolenguas*en agertzen dituen berreraiketaren legeetarikoa batean oinarritzen da: ez da berreraiki behar nahi dena azaltzeko guztiz beharrezko ez den ezer. Kontuan izan, 6. bokal bat berreraikitzeak goitik behera aldatuko zuela AErako proposatu bokal sistema, eta honekin batera sistema fonologiko osoa. Horregatik, oso garrantzitsua da ezer modu mekanikoan berreraikitzen ibili aurretik beste irtenbide edo azalbiderik egon daitekeen bilatzea, bestela ondorioak benetan larriak izan baitaitezke.

Gure lan honetan, jada esan bezala *L&PL*eko berreraiketaren legeei jarraiki, gorago azalduriko adibidearen antzeko kasu baten gainean arituko gara. Bide honetatik, ikusiko dugu

ea euskal fonologia diakronikoan estandarra den proposamena benetan zilegi den edo aldaketa txikiren baten beharra duen.

## 2. MITXELENAREN SISTEMA ESTANDARRAZ

Lan honen hasikinetarako, beharrezko zaigu gaur arte estandartzat hartu izan den Mitxelenaren (1957) sistema fonologikoaren nondik-norakoak azaltzea; estandarra, eta ondorioz proposamenik osoena eta zehatzena izateaz gain, hurrengo ikerlari askoren oinarri eta eredia izan baita fonologia historikoaren alorrean.

Beharrezko zaigu, aipatu bezala, alde batetik bere sistema eta inbentario fonologikoaren deskribapen bat egitea, hori izango baitugu gure proposamenaren bidez denboran atzerago egiteko abiapuntu. Argi dago nora goazen jakiteko ondo ezagutu behar dela nondik gatozen, edo nondik abiatzen garen, eta hau izango da aurrera beharrean antzinagoko garaietara jotzeko erabiliko dugun lehen geralekua: AE<sup>1</sup> eta Mitxelenak hizkuntzaren garai honetarako proposatzen duen sistema fonologikoa. Soilik beranduago begiratuko diegu honen azpian dauden metodologia eta oinarriei, gure atzeranzko bide honen desberdintze aldera, ondoren oinarri hauen inguruko gogoeta bideratzea izango dugulako gure beste helburuetako bat.

### 2.1. Mitxelenaren sistema

Mitxelenak 1957an aurkeztu zuen AErako sistema eta inbentario fonologikoa. Honen bidez, hizkuntzen historiaurrearen berreraiketarako konparaketa bide bakarra zelako Meilleten baieztapenei aurre egin zien, erakutsiz badela atzera begiratzeko beste metodo bat, barneberreraiketa hain zuzen. Barneberreraiketa eta latinetiko maileguk denboran zehar euskarari jasandako aldaketa eta garapenak tresna bezala harturik, erakutsi zuen ahaiderik gabeko hizkuntzek ere historia izateaz gain, historia hori ikertzera heltzea posible dela.

Funtsean, Martinetek (1950) eta lehenago Gavelek (1920) euskararen barnean ikusi zuten joerari erreparatu zion Mitxelenak ere, nola euskarak joera zuen herskarietan hitz-hasieran fonema bakarra, barnean bi oposaketan eta hitz-bukaeran berriro ere bakarra izateko. Hori kontuan hartuz, eta Martinetek (1950) T-entzat egindako berreraiketari begira, hau zehaztu eta zabaltzeko helburua zuen Mitxelenak, C-sail guztiek funtsean bilakabide bera izan zutelakoan, hau da, euskararen sistema fonologikoaren barnean C-sail guztiek dinamika berari jarraitzen ziotelakoan, sistema bakar eta bateratu baten alde egin zuen (*h* izango genuke sistema bateratu honetako salbuespena).

---

<sup>1</sup> Lanean zehar erabiliko ditugun laburdurak: AE: aitzineuskara, AEZ: aitzineuskara zaharra, AEM: aitzineuskara modernoa, EBZ: euskara batu zaharra, T: herskariak, R: ozenak, S: txistukariak, V: bokala.

Dakigunez, Martinetek (1950) T-entzako sistema karratu bat eraiki zuen, ahostun/ahoskabe oposizioan izan beharrean, lenis/fortis sistema batean oinarrituko zena eta *h*-aren agerpenaren bidez gauzatuko zena. Sistema karratu horretan, T-ek artikulazio-puntu bakoitzeko bi fonema eta posizio bakoitzeko alofono bana izango zituzten.

Ondoren, hasiera eta amaierako guneetan oposaketan zeuden bi fonema horiek bakar batean neutralizatuko ziren, oposaketa soilik hitz-barnean mantendu eta erronbo itxurako sistema bat emanaz<sup>2</sup>. Mitxelenak erronbo erako sistema hau C sail guztietarako orokortu zuen AEn, oposaketa artikulazioaren indarrean oinarrituz, eta ez hainbeste hasperenean eta luzeeran Martinetek T-ekin egin bezala. Hala ere, konturatu zen momentuz ezinezko zitzaiola, T-ekin egin bezala, horren aurreko sistema karratuaren aldeko frogak topatzea eta ondorioz hauetarako berreraikitzea. Fonologiaren bidez atzerago jo ezinik, erronbo sistemaren garaian geratu zen, AEn, non hitz-hasieran lenisaren aldekoa izango zen neutralizazioa, eta amaieran, ordea, fortisaren aldekoa.

Akitanierazko eta iberikoaren datuei begira ez ezik, latinezkoen bidez ere frogatu zuen Mitxelenak C guzti horien lenis/fortis sailak izan zirela, erakutsiz nola V arteko fortisak euskaraz mantendu diren modu berean desagertu edo aldatu diren kokagune berberean lenisak:  $l > r$ ,  $n > h$  ( $> \emptyset$ ), etab. Baieztapen guzti hauetatik ondorioztatu zuen ondorengo inbentarioa (1957: 153):

<i>Fortes</i>	(p)	<i>t</i>	<i>tz-ts</i>	<i>k</i>	<i>N</i>	<i>L</i>	<i>R</i>	<i>h</i>
<i>Lenes</i>	<i>b</i>	<i>d</i>	<i>z-s</i>	<i>g</i>	<i>n</i>	<i>l</i>	<i>r</i>	

Ikus dezakegunez, euskara historikoko hainbat hots inbentariotik kanpo utzi zituen, edo adierazgarriak eta ondorioz sekundarioak zirelako sabaikarien kasuan, edo alofono batetik zetozelako /m/-rekin, edota modernoak zirelako eta aurreko garaietarako postulatzeko frogarik ez dagoelako: /f/ eta /p/. Funtsean, *L&PL*eko (eta gutxienez Meilletengandik datorren linguistika diakronikoko) berreraiketaren legeei jarraiki, berreraiketarako beharrezko ikusten ez zuena ez zuen sisteman sartu. Aldiz, hasperena ezinbesteko begitantzen zitzaiolako sartu zuen sisteman, ez zelako fonema hau postulatu gabe euskara historikoko *h* guztiak egoki azaltzerik. Honenbestez, bere proposamenean kokagune bakoitzean bi fonema dira, eta guztira 17 C; 16 sistema bateratu honetan, gehi *h*.

Gurean, fonologia diakronikoak jarraitu duen tradizioa funtsean ez da Mitxelenak harturiko bidetik urrundu metodologia kontuetan, azken batean ez delako bide berriak

---

<sup>2</sup> Bukaerako kokagunearen bilakabidez ordea gauza handirik ez dio.

urratzeko premiarik ikusi duela gutxi arte<sup>3</sup>. Bere maisutasunaren erakusgarri dugu *L&PL*, zeinaren bidez euskararen diakroniaren oinarri eta tradizio txiroan berreraiketarako eta barne-berreraiketarako arau eta irizpideak finkatu eta hau hizkuntzen arteko kognatuen konparaketaren bidez uztartu dituen.

Gure lanean oinarrietara jo nahi dugu eta ezinutziko izango dugu bere AErako sistema fonologikoaren proposamenaren azpian diren metodologia eta euskarriak azaltzea, guk hartuko dugun bidea argiago uzte aldera, eta ondoren oinarri hauen inguruko gogoeta bideratzea izango dugulako 2. helburu.

Inbentario fonologikoa biltzen duen "Las antiguas consonantes vascas"-en argi uzten digu euskal ondareko lexikoaren anabasan barneratzeko eta hauek erakusten dituzten kontrakotasunak (*poz/gorputz*) argitzeko tresna bakartzat duela "el concepto fonológico de neutralización" (1957: 116). Bere ustez, euskararen hitz-hasiera eta amaierako neutralizazioak ez ziren guztiz garatu edo neutraldu inguruko sistema fonologikoen eraginez —ondoren oposaketak berriro ere zabaldu ziren arrazoi berberetatik— eta horretan datza bere aburuz gaurko euskararen sistema fonologikoa ikus daitezkeen irregularitateak edota kontrakotasunak euskal ondare historikoko hitzen garapenean. Uste du euskara historikoak gorde egin duela beranduago kutsatuko den sistema neutraldu zaharra: "si las oposiciones modernas *sorda/sonora, africada/fricativa* tendían a perder validez en los mismos contextos aproximadamente, ello podía deberse a que los dos tipos modernos de correlación no fueran más que diversificaciones de una única correlación antigua" (Mítxelena 1957: 116).

Hala ere, neutralizazio hauen gainean gertaturiko "kutsaketak" nolabaiteko erruduntzat baditu ere, kontzeptu berbera du egoera argitzeko giltz bakartzat, neutralizazio-puntuetan gertatu den analogian jartzen du fokua bere sistemaren proposamenerako; neutralizazioen analogiek eta horiek erakusten dituzten hizkuntzaren joerek aurreko hizkuntz-egoera eta garaietako fonemen inguruko zantzuak ematen baitizkigute (1957: 117).

Gorago aipatu bezala, neutralizazioaren kontzeptua Martineten (1936) lanetik hartu du, eta hark (1955/50) euskal herskarietan erabili modu berean darabil gainerako C-ekin. Hau da, hitz-hasiera eta amaieretan neutralizatzeko joera izan dute euskal C-sail guztiek, erronbo itxurako sistema sortuaz.

---

<sup>3</sup> Izan dira bestelako lanak ere, Trask (1985) edota Hualde (1997). Hala ere, Mítxelena 1500 etimologien ondoan hauek ez zuten berri bakar bat ere eman; ondorioz, esan genezake ez direla ez emankor, ezta kontuan hartzeko moduko ere.

Martineten kontzeptua onartuz, Mitxelenak gaineratu zuena da, garai zehatz batean neutralizazio hori burutua, burutugabe edota berriro ere desagerrarazia izatea litzatekeela funtsean *poz* eta *gorputzen* arteko desberdintasuna azalduko lukeena.

Mitxelenak lenis/fortis sailak desberdintzen zituen ezaugarria "una pronunciación más o menos tensa" (1957: 138) dela defendatzen du, hau da, bien arteko tartea artikulazio indartsuago batean datzala, eta honen aldeko arrazoiak ikusten ditu kontsonante guztietan, txistukarietatik hasita. Bestalde, argi du C guztiak puntu beretan neutralizatzeaz gain, oposaketa ere puntu horretantxe mantentzen dutela: *ero/erro*, etab. Jada aipatu dugun bezala, ideia hau hartzen du C guztiak sistema bakar eta bertsu batean sartzeko lagungarri.

Guzti hau kontuan, esan dezakegu Mitxelenaren erronbo sistema fonologian oinarritzen dela, honen euskarri bezala baitu neutralizazioaren kontzeptua eta honen moduan eta kokapenean ez ezik, C-sailen arteko desberdintasuna ere "ahoskera"ren gainean eraikitzen baitu. Erabat garbi da sistemak funtzionatzen duela, horren erakusgarri baitira lortutako ehundaka etimologia, baina jarraian bultzatuko ditugun gogoetek erakuts dezakete agian badela arrazoirik sistema hau osatu eta aldatzeko. Horren aldeko argudioak ematen saiatuko gara jarraian.

Berak ikusten dituen arazoak aurkeztu eta iruzkintzeaz gain, ahaleginduko gara geuk nabari dugun zenbait ahulguneri erreparatzen, bereziki bere sistemaren euskarri den neutralizazioaren kontzeptuan eta honen modu eta kronologian.

## **2.2. Sistemaren gaineko hausnarketak**

### *2.2.1. Hitz-hasiera eta amaierako neutralizazioak ez dira garaikide; ahulen arrastoak hitz-bukaeran.*

Arazo hauetako bat litzateke berak espresuki aipatzen dituen hainbat alternantzia topatzen dituela hitz-bukaerako hotsetan, batez ere dardarkarien kasuan. Hauetaz ari dela "aquí el vasc. conoce algunos casos de *-r* suave, conservados muy desigualmente: (*h*)*aur* 'este', (*h*)*irur* 'tres', *laur* 'cuatro' cuya *r* generalmente no se pronuncia hoy" (1957: 140). Ondorioz, onartzen du badirela hitz-bukaeran *r* bakuna ageri duten kasuak euskararen barnean, eta are gehiago, badela zenbait toki non gaur egun bukaerako oposaketa hori oraindik desberdintzen den. Hori diosku ondoko zuzenketak ageri dituen *FHVn*, "Hay, pues, ciertos lugares,[...] donde la consonante final de *ur* 'agua' no se ha confundido con la de *ur* 'avellana' (1977: 556). Ez dio alternantzia honi azalpenik ematen, ezinezko baitzaio bere hitz-bukaerako fortisaren aldeko sistemaren barruan, baina onartzen du artxifonema *R*



gogorra edo anitza bada ere, aukera hau "no se actualice siempre" (1957: 141), hots, neutralizazioa kasu honetan ez dela guztizkoa, edo ez dela guztiz gertatzen gutxienez.

Badirudi momentura arte azaldutakoarekin bukaerako *r* ahularen existentzia soila zuzenean arazotsu dela Mitxelenaren fortis bukaerako sistemarentzat, erakusten digulako bukaerako neutraltze hori ez dela hain guztizkoa izan sisteman —R-en sailean, bederen— eta era berean hain zehatza zen sistema osoaren batasuna zalantzan jartzeko zirrikitu nimiñoa irekitzen digulako.

Txistukariei begira antzeko alternantzia batzuk erakusten dizkigu, nahiz ez dituen arazotsutat hartzen, bere ustez hitz-amaierako afrikatuaren aldeko froga baino ez baitira, era berean, hitz-barneko oposaketaren erakusgarri "alternancias como (*h*)*auts* ‘polvo’ / *ausi* ‘roto’ [...], *gatz* ‘sal’ / *gazi* ‘salado’, *orratz* ‘aguja’ / *orrazi* ‘peine’, *ugatz* ‘pecho’ / *ugaz*- en numerosos compuestos" (1957: 73). Toki berean beste alternantzia interesgarri bat erakusten digu, "casos aislados como (*ba*)*litz/lizate*". Honi buruz dioskuna da afrikatua oinarrizko forman ageri den bitartean frikaria konposatu eta eratorrietan ageri zaigula, bukaerako posizioan ez delako (1961: 289). Hala ere, onartzen du bukaerako bortitzaren aldeko jarrera "no totalmente realizada" (ibid) dela.

Guri, ordea, ez zaigu azalpen hau asegarri iruditzen, eta zehaztera goaz zergatia. Txistukarien lekukotasun hauek kontuan hartuaz, konturatuko gara bikote hauetako 2. osagaiek *-i* atzizkia daramatela, partizipioak osatzeko erabilia. *Hauts*-etik *ausi* sortzea zaila da azaltzen, zergatik desafrikatuko zen hitzaren erdigunean bertan oposaketa mantentzea euskaraz naturala bazen? *Ausi* edota *gazi* azaltzeko uste dugu Lakarrarekin beharrezko dela aurretiko *\*haus* edo *\*gaz* erroak proposatzea. Erro horiek, alde batetik partizipioaren marka hartu eta *hausi* edo *gazi* emango lukete, morfemarik hartu ez duten hitzek Mitxelenaren hitz-bukaerako bortiztea jasaten zuten bitartean.

*L&P*Leko baieztapen batean oinarritu gara honetarako: "las correspondencias de sonidos —entre contextos diferentes de un mismo estado de lengua— [...] definen en la reconstrucción los fonemas de una fase mas antigua" (1963: 40). Hots, gaur egungo euskararen hizkuntz-egoeraren hotsen korrespondentzia batek (CVs + *-i*: CVS) eraman gaitu hitz-bukaera horretarako fonema zaharragoa den frikari bat proposatzera. Hau horrela balitz, badirudi R-en bukaerako neutralizazio osatugabeak zabaltzen digun zirrikitua gero eta handiago bilakatzen ari dela S-ekin, eta hizkuntzaren aurreko garairen batean —partizipio-markak hartu baino lehen— bazirela fonema ahularekin bukatutako erroak; erro hauetariko batzuk gero ere mantendu dira hizkuntzan.

Hau ondorioztatu ahal izateko argi da fonologiari begiratzea ez dela nahiko izan eta morfologiak ere jokoan sartu behar du.

Berak R-ekin topatzen duen arazoari eta Lakarrak S-etan ikusitakoari erreparatzen badiegu, nabari da R eta S-ek komunean duten ezaugarria: bukaerako neutraltze berantiarra, aurreko hizkuntz-egoeraren (fonema ahulak) arrastoa oraindik ikusgarri delarik garai historikoan. Honek, gorago aipatu bezala, sistema erabat erregular honetan zirrikitu bat zabaltzeaz gain, kronologiari begira jartzen gaitu: zergatik topatzen ditugu fortis/lenis alternantziak hitzaren bukaera aldean eta ez ordea hasieran?

Hitz-hasiera eta bukaerakoaren arteko neutralizazioaren kronologiari begiratzeko tresnarik fidagarrienak S-ak direla uste dugu, hauek erro hasieran ez ezik, bukaeran ere azaltzeko gaitasuna baitute, R-ek ez bezala (hasierako gunea hutsik ageri da eta ez da zerekin erkatu). S-en kokapenari eta kokagune hauetan ageri diren fonemei begira jartzen bagara, joera argia nabari da ondare zaharreko hitzetan: hauen barnean eta bukaeran C afrikatuak franko ageri diren modu berean hasieran ez da ia horien arrastorik, ez bada oso hitz gutxitan. Mitxelenak berak erakutsi zigun joera honen indarra: "para la inicial, basta recordar que, excepto *tx-* (en labortano siempre *x-*) no hay más que *s-* y *z-*, incluso cuando la forma romance tenía con seguridad una africada" (1957: 135). Bestalde, fonosinboliko eta adierazgarritzat jo zituen *ts-* eta *tz-* hasten ziren hitz guztiak (ibid.)

Latinezko *caelum* erromantzearen bidez euskarara sartu zenean hasierako afrikatua frikariaren bidez ordezkatu izanak gaur arte mantendu izan den hasierako frikariaren aldeko joera benetan gogorra azaleratzen digu. Amaierako afrikatuaren aldeko joera ere indartsua izan den arren —*corpus* > *gorputz*-ek erakusten digunez latina euskararekin ukipenean zenean jada nagusi zen—, badirudi hain zaharra ez dela, goian aipaturiko arrazoiengatik, hots; gaur egungo euskarak oraindik mantentzen dituelako bukaerako ahularen zantzuak, hasierako bortitzenik inon ageri ez den bitartean.

Guzti honek irregulartasun edo oreka falta sortzen du Mitxelenaren sistema neutralduan, ez baitirudi neutralizazio guztiak garaikide zirenik. Ez da arrazoirik pentsatzeko hasiera eta bukaerako neutralizazioak denbora eta modu berean sortu zirenik, eta ondorioz, begiratu beharko litzateke zein izan zen apurka-apurkako aldaketa prozesu hori. Lakarraren (2009: 46) hitzak hartuz "bestetan legez, badirudi hitz hasierako kokaguneak gordetzen duela informazioz zaharrena edota garairik zaharrenaren isla."

Hori gutxi balitz, badira arrazoiak pentsatzeko C sail bakoitzaren barruko kokapen desberdinetako neutralizazioak garaikideak ez izateaz landa, sail desberdinen artean ere badela desberdintasunik neutralizazioen kronologian. Hori da hein batean R eta S-en

erkaketak erakutsi dezakeena: S-en hitz-amaierako neutraltzea berankorra bada ere, R-ena are berankorragoa izango litzatekeen zantzuak ditugu.

Gorago erakutsi ditugun *ur/uR* erako alternantziak S-enak baino askoz ugariago eta zabalagoak dira gaur egun hizkuntzan eta hiztunek oraindik biak nahastu egiten dituzte kokagune horretan; R bortitzaren aldeko aukera oraindik ez da guztizkoa gaurko hiztunen artean. Horrek esan nahi du oraindik oposaketa erdi bizirik dela, eta hauen bukaerako neutralizazioa oraindik S-ena baino osatugabeago dagoela. Egoera honek, halaber, eramaten gaitu ondorioztatzerako neutralizazioa oraindik berankorragoa litzatekeela dardarkarrietan S-etan baino.

### 2.2.2. *Neutralizazioa ote?*

Aurretik azaldu bezala, Martinetek eta Mitxelenak AErako T-en sistema karratua proposatu zuten, ondoren, EBZan edo, erronbora egingo zuena, hasierako posizioan zeuden fonema biek, bortitzek (hasperenduek) eta ahulek (ahoskabe goxoek), fonema bakarra emanik. Fonema bakar hau ahoskabe goxoa litzateke; ondoren, eta Martineten ustez latinaren ahostun/ahoskabe sistemaren eraginari zor zaio aldaketa hau, bortitz hasperenduna desagerrarazi eta herskari ahostuna emango zuena. Aldaketa hau neutralizazioaren kontzeptu fonologikoaren bidez azaldu zuen Martinetek, eta Mitxelenak hark esandakoa onartu.

Gure ustez, bada oharren bat egitea honen gainean eta lehenengoa Lakarraren (2009) eskutik dator, esaten duenean ez dela beharrezko ahoskabe goxotik ahostunerako aldaketa nahiz ahoskabeen hitz-hasierako sorrera kanpoko eragin bati egozte. Berak dioenez, "badirudi, ordea, prozesu konplexuagoa, luzeagoa eta hein batean interesgarriagoa dugula, hizkuntzaren beraren barneko arrazoiei zor zaielarik" (2009: 46). Aipatzen dituen arrazoi horietan nagusia —T bortitzak hasperendun bilakatzeaz batera ahulak ahostun egitea ahalbidetzen duena— hiperkarakterizazioa da. Ondoren, Martinetek (1950: 226) aipatzen duen bezala, hasierako kokagunean soilik T ahostunak baino ageri ez dituen sistema ez litzateke egonkorra izango, eta hizkuntzaren barneko beharrek beraiek eragingo zuten ahoskabe bat sortzea. Hala ere, argi da Lakarrak dioskun bezala, "prozesu hau ez zen egun batetik bestera gertatu" (2009: 46), eta horren froga bezala erakusten dizkigu latinarekiko ukipenaren lehen garaietan harturiko maileguak ahostunaren bidez soilik azaleratu izana euskarak: lat. *pacem* > *bake*, eta abar luzea.

Honetaz gain, eta berriro ere interesatzen zaigun diakroniara begira, bada beste ohar bat egiteko T-en sistema karratutik erronborako bidean gertatu "neutralizazioaz". Kakotx artean ematen dugu hitza, hain zuzen ere gure ustez sinkroniari begira "neutralizazio"

diakronian beste zerbait izatea gerta daitekeelako, jarraian erakustera goazen bezala. Honen azalpenerako egoki iruditu zaigu Campbellen hizkuntzalaritza historiko edo diakronikoaren inguruko eskuliburuan ageri den kontzeptu honen definizioa hona ekartzea. Campbellek neutralizazioaren kontzeptu diakronikoari *merger* deitzen dio, *spliten* kontrakoa, eta hona bere esanahia: "Mergers are changes in which, as the name suggests, two (or more) distinct sounds merge into one, leaving fewer distinct sounds (fewer phonemes) in the phonological inventory than there were before the change" (1998: 20).

Itxuraz honaino denak funtzionatzen du, hots; azken batean, badirudi hori dela euskal karratutik erronborako bidean gertaturikoa. Lehen fonema sail bi, T hasperendunak eta hasperengabe goxoak, zeuden tokian T ahostun bakarra topatzen baitugu, beraz, bi ziren kokagune horretan bakarrarekin geratu gara. Horrela izango litzateke ez balitz "two distinct sounds *merge into one*" zatiarengatik eta Campbellek berak (1998: 20) argigarri bezala ematen dituen bi eskema txikiengatik: mergerrak bi adierazpide ditu, "A, B > B" edota "A, B > C".

Hau da, *merger* bat izateko bi aukera dira: lehenengoa kokagune berean bi hots desberdin izatetik (A, B) bat "desagertu" eta bestearen alde egitea litzateke, lehen bi fonema zirenak bakar bat bilakatuaz. Bigarren kasuan ditugun bi fonema horietako baten alde egin beharrean, biak fusionatu edo urtu eta hirugarren desberdin bat emango dute (C), kasurik ziurrenean aurretiko bi fonemen ezaugarrien nahasketa bat izango duena.

Euskaraz badirudi lehen aukeraren aurrean garelako, neutralizazio arrunt bat baino ez dela begien aurrean duguna. T hasperendun bortitz (A) eta T ahul hasperengabeetatik (B) geratuko litzatekeen fonema bakarra T hasperengabeak emango duen ahostuna (B) litzateke. Baina hori baieztatzea diakroniari eta honek aztergai duen denboran zeharreko aldatari begiak ixtea dela pentsatzen dugu.

Lehen eta behin, gramatika historikoaren ikuspegitik bi pauso banatu beharko bide genituzke. Lehenengo pausoa litzateke azaldu dugun bi T sailek bakarra ematea (*b*, *th* > *b* [+*/h/*]), eta 2. pausu bereizia litzateke latinezko hots desberdin bi euskaraz bakarraren bidez ordezkatzeko (lat. *p*, *b* > eusk. *b*). Bi pausu diren aldetik, bakoitzak bere azalpena izatea beharrezko duela begitantzen zaigu, eta soilik ondoren lotu daitezkeela biak.


Lehen urratsari begiratuaz kontura gaitzke bertan ez dela "two distinct sounds *merge into one*"-ik. T sail bakoitzak bere garapena eta aldaketa jasan du, hasperendunak gero eta hasperendunago egin dira hiperkarakterizazioak lagunduta, eta azkenean hasperen bilakatu.<sup>4</sup>

---

<sup>4</sup> Bai Mitxelena eta bai Martinetek aipatzen dituzte *th*-> *h*- bilakabideaz ari direla hainbat lekukotasun, beste askoren artean *alde/talde* bezalakoak.

Indar berak bultzatu ditu hasperengabeak ahostuntzera. Hots, ez da bi hotsetatik bakarra geratu, baizik eta bi horietako bat hasperen bilakatzean T-en sistematik irten egin da bere artikulazio-moduaren eta "nortasun"aren aldaketagatik. Hasperen bihurtuarren lehen T bortitz zenak hor jarraitu du, ez da "desagertu" (eta oraingoz sistema zaharreko unitate kopuru bera dugu). Izatekotan ere, sisteman aurretik zen beste hots batekin berdindu da gero (jatorrizko hasperenarekin), baina ez du inoiz ere T ahostuna eman.<sup>5</sup>

Herskarien sailetik irtetze horrek eragin du T-etan soilik ahostuna geratzea, eta horrek ekarri du T-etako galera, T batzuk (bi) aldatu eta beste sail batera pasatuko direlako, eta T mota bi zeuden tokian bakarra eta hasperen bat geratu dira. Eskema batean adieraztekotan, hurrengo litzateke euskaran gertaturikoa: A, B > C, D; lehen aipatu bi aukeretatik bakar bat ere ez. Beste modu batean adierazita, hurrengo eskema (1) litzateke, eta ez (2):



Neutralizaziorik ez dela argi utzi dugulakoan gara bi fonema desberdin ez direlako bakarrean urtzen eta hori da neutralizazio kontzeptuaren gakoa. Neutralizazioa egotekotan 2. fasean izango litzatekeela defendatuko dugu, hau da, latinezko ahoskabe zein ahostunen ahostunaren bidezko ordezkapenean.

Neutralizazio hau latinetik euskararako bidean gertatuko da, latinean desberdinak ziren fonema bi, T ahostun eta ahoskabea, bakar baten bidez adieraziko direlako euskaraz, lehenaren bidez. Prozesua honakoa litzateke: lat. [-hasperendun] > eusk. [-hasperendun]. Neutralizazioaren baldintza guztiak betetzen dira: bi hots desberdin bakar batean biltzen dira eta gainera, galera bat dago latinaren sistema fonologikotik euskararenera pasatzerakoan.

Honek Mitxelenaren sisteman zer ondorio izan dezake? Lanean aurrera egin ahala saiatuko gara galdera honi erantzun bat ematen.

### 2.2.3. Kontsonante sailen arteko oposaketa berdina izateko oso desberdinak dira oposaketa-motak beraien artean.

Fortis/lenis oposaketa duen Mitxelenaren sistema ideiala nahiko abstraktoa dela esan dezakegu. Azken batean, zenbat eta fonologikoagoa izan ikuspuntua eta proposamena, hainbat eta sistema abstraktoagora helduko gara. Iduri du sistemara fonetikaren bidez

---

<sup>5</sup> Honek badu bere azalpen eta zehaztapen fonetikoak: euskarazko C sail biek ez badituzte beste bi eman, sistema oso desberdinak ziren seinale da. Euskarak bortitzak zituen, oso hasperendunak hasieran edota oso luzeak V artean, eta latinak ez zuen hasierako hasperendun horien antzeko soinurik. Ondorioz, hasperendun hain berezi hauek ez zen bakar bat ere sartuko latinetik hartu maileguetara hitz hasieran, hiztunentzat oso soinu desberdina zen aldetik ez zutelako aukeratuko latinezko hotsaren ordezkari bezala. Euskarazko ahoskabe goxoez ordea askoz distantzia fonetiko txikiagoa zuten latinezko hotsekiko, beraien ahostunetatik nahiko hurbil baitziren.

hurbilduz goazen heinean arazo gehiago ageri zaigula, zenbat eta zehatzago jokatu traba gehiago ageri zaiola sistema bateratu honi, ikus daitekeelako bere barneko osagai desberdinek komunean dituzten ezaugarriak edo osagai desberdin hauek sistema bakarrean batzeko oinarrian den oposaketa nagusia ez dela pentsatzen genuen bezain uniformea.

Dakigunez, sistemak "no conocía mas que una correlación que oponía fonemas fuertes, de articulación tensa, a lenes, de articulación más laxa o más breve, sin que sonoridad o aspiración fueran rasgos pertinentes" (Mitxelena 1961: 374). Hau da, artikulazio gogorragoa lasai edo bigunagoari oposatzen zitzaien, hori izango litzateke funtsean oposaketaren izaera, C guztiei ezarri beharrekoa. Baina sailak banan-bana begiratzen jartzean konturatzen gara gogor/bigun tasun hori oso lausoa dela, oso abstraktua, eta C sail bakoitzean oposaketa modu desberdin batean azaleratzen dela, jarraian erakutsi bezala.

Herskariei begira, badakigu erronboaren aurreko paradigma batean Mitxelenak Martineten (1950) azalpena eta honek dakarren hasperendun/hasperengabe oposaketa onartu zituela. Karratutik erronborako bidean oposaketaren erabateko aldaketa jazo zen, denboran zehar erronboa guztiz finkatu zenean ahostun/ahoskabe bihurtuko zena. Ondorioz, iduri du indarraren adierazpidea T-etan hasperenaren bidezkoa zela hitz-hasieran,<sup>6</sup> hasperena zela fonemari bortiztasuna ematen ziona. Hasperenaren agerpen hau ez da beste sail batean ere jazo, nahiz eta Martinet (1950) S-en sailari horren bidezko azalpena ematen saiatu; Mitxelenak aukera hau baztertu egin zuen.

Sudurkarietz ari denean, euskara historikoko *annaia* eta *erretanna* (FHV, 307/251) bezalako hainbat grafiari begira *n* "luze" baten existentzia onartzen du "que se ha comportado exactamente como lat. *nn* en los préstamos" (307). Albokariekin gauza bera aldarrikatzen du, hots, gaur arte heldu diren V arteko *l*-ak "era [...] no un grupo, sino un fonema que se oponía a *l* aproximadamente como *N* a *n* y *R* a *r*". Sudurkarien oposaketaren antza handia zuela esaten badu, seinale albokari bortitz hauek ere luzeraz kontrastatzen zutela ahulekin. Hori gutxi balitz, R-ak ere joko berean sartzen ditu baieztapen horretan. Ondorioz, badirudi ozen guztiak oposaketa-mota beraren menpe direla.

Momentuz, alde batean T-ak ditugu beraien hasperenketaren oposaketa partikularrarekin eta bestean R-ak, luzeraren araberako desberdintasunean oinarritzen direnak. Zertara lerratzen dira geratzen zaizkigun S-ak? Esango genuke ez direla aurreko bietako oposaketa bakar batera ere hurbiltzen, dakigunez, S-etako bi sailen arteko desberdintasun nagusia afrikatuetako hersketa baten agerpena delako. S-sail batetik

---

<sup>6</sup> Barnean luzera, hortik latinetiko geminatuak, ahostun nahiz ahoskabe, beti bortitzarekin (ahoskabe) agertzea.

besterako hersketa horren txertaketak dakarrena artikulazio-moduaren aldaketa bat da, ez besterik.

Mitxelenak bateratu egiten ditu alde honetatik T-ak eta S-ak (1957: 138), argudiatuz bietan dela tentsio-aldaketa bat. Egia da hori, baina tentsio-aldaketa horren azpian biltzen diren arren, 2. maila batean hori berori da desberdin dena eta C sailak beraien artean desberdintzen dituen oposaketan. Beste era batera esanda, C sail bakoitzak bere oposaketa mota du: T-ek hasperenketa eta luzera, S-ek hersketa, R-ek luzera.

Hemendik ondoriozta bide dezakegu ahoskatze indartsu/ahul horretan oinarritzen den oposaketa oso orokorra eta era berean oso abstraktua dela sisteman, eta sistema osoarekiko urruneko begiratu baterako baliagarri den arren, arazoak ematen ditu honetara hurbiltzen goazen heinean, ikusten dugulako benetan C sail desberdinen arteko oposaketa-motek ez dutela antz handirik beren artean. T-ak eta S-ak, ordea, bakoitza bere aldetik doazela dirudi, garapen beregaina eduki dutela. Ez dugu inondik inora ere Mitxelenaren oposaketa suntsitu ezta gezurtatu nahi; erakutsi nahi duguna da plano desberdinetan gabiltzala bera eta gu, eta kontuak ez zaizkigula berari bezala ateratzen.

Guzti honetatik hurrengo dator: sistema osoa oposaketa batean oinarritzen dela onartzen dugu, eta ikuspuntu horretatik batasun handiko sistema litzateke, baina gure bide honetatik ibiltzeak garamatza baieztatzerantz berriro ere batasun hori hari benetan mehe batetik zintzilik dela, eta C-sail bakoitzaren beregaintasuna ere nahiko argi geratzen dela. Gainera bada beste kontu bat ere: hari hori fonologikoa ote? Ikuspegi fonologiko/fonetiko honetatik ezer gutxi gehiago esan dezakegun arren, uste dugu lanean aurrera egin ahala eta ikuspuntu aldaketa batekin galdera honi azalpen bat emateko gai izango garela.

### **3. BERRERAIKETA BERRIA ETA HONEN BIDEZKO SISTEMA ESTANDARRAREN BERRAZTERKETA**

Bigarren atal honetan, ez soilik Mitxelenaren sistemaren gaineko hausnarketak egiteko, baizik eta denboran harenaren aurretik gurek antzinako sistema bati eta horren garapenari begiratzeko emankor gerta daitekeen ikuspegi berri bat jorratuko dugu. Uste dugunez, azterbide honen bitartez Mitxelenaren sistemara nola heldu garen azaltzeko gai izateaz gain, aurretik azaleratu ditugun sistema estandarraren hainbat ahulgneri azalpen eta zergatia aurkitzeko gai izan gaitezkeela argudiatuko dugu.

Gorago azaldu bezala, Mitxelenaren fonologia bidezko berreraiketak bere mugak ditu, sistemak sor ditzakeen arazoez gain, ez baita atzerago egiteko edo hizkuntzaren egoera zaharrago bati dagokion sistema fonologikoa eraikitzeko gai. Egon daitezkeen beste batzuen

artean, honen arrazoi nagusienetakoa izan daiteke berak proposaturiko zenbait bide berak bere garaian sakonki jorratu ez izana, eta ondorengo askok ere alboratu izan dituztela, edo gutxienez ez dela haietatik behar adina tiratu. Garatu gabe geratu diren proposamen hauen artean ditugu baten baino gehiagotan aipatzen dituen eta euskara historikoan lekukotasun oparoak dituzten ozen ondoko lenisaren aldeko neutralizazioak, eta baita gure lan honetan bereziki garrantzitsu izango den bortitzen jatorriaren auzia, Mitxelenak iradokitzen baitu (375-6), zehaztasunetan sartu gabe, hauek C-taldeetarik sortuak izan litezkeela. Aurreikusi daitekeenez, baieztape honen ondorio garrantzitsuak izan ditzake sistema honen historiaurrean gertatutakoari begira.

Lakarrak (2011: 11) argi adierazten digun bezala, "edozein berreraiketa aldatzeko lau arrazoi mota edo lau bide izan ohi dira (cf. Haas 1969: 46): (1) hizkuntza ahaide bat aurkitzea, (2) aitzinhizkuntza ahaide bat aurkitzea, (3) mailegu zahar aztertugabeak erabiltzea, edota (4) lanabes erantsirik gabe, lehendik ezagun zirenak modu ezberdin batez erabiliaz edo azertuaz teoria edo interpretazio berriren bat erdieste". Dakigunez, lehenengo hiru bideak momentuz agortuak dira gurean, eta 4.ari so egitea tokatzen zaigu.

Gure helburua ezer aldatzea ez den arren, estandarra den berreraiketaren gaineko hausnarketa eginaz 4. bide honetan jarriko dugu gure arreta osoa, eta tresna bezala erabiliko dugu hizkuntzaren alde morfologikoa. Lakarraren (1995) morfema lexikoen forma kanonikoan oinarrituko gara, hots, CVC erro monosilabikoa proposatuaz Mitxelenarenaren aurretik legokeen hizkuntza egoera zaharrago baten forma kanoniko zaharreen.

Horretarako, hizkuntza monosilabikoetan ohiko den eta era berean txineraren kasuan entzute handia izan duen Sagarten (1999) eta Sagart & Baxterren (2014) metodologia, ekarpenak eta arrazoibidea euskarara aplikatzen saiatuko gara.

Nahiz Lakarraren 1995ko lana izango dugun oinarri teoriko nagusitzat, metodologia aldetik haintzat hartu ditugu Sagarten (1999) eta Baxter & Sagarten (2014) lanak. Hauetan monosilabikoa den txineraren berreraiketa berri baterako erabili ikuspuntu eta lanabesek gure hizkuntzaren bilakabidearen berreraiketari argi izpi garrantzitsuren bat jaurti dezaketelakoan baikaude<sup>7</sup>.

---

<sup>7</sup> Hiru aldetatik iruditzen zaigu interesgarri eta lagungarri bi autore hauen lan sakona. Lehendabizi, gurean gertaturikoaren antzekoa izan litekeen zerbait aitortzen digutelako: "the focus has been on phonetic reconstruction, with relatively little attention to morphology or to the syntactic and semantic properties of the reconstructed forms" (Baxter & Sagart 2014: 3), "The reconstruction of Old Chinese is sometimes treated as a pure matter of fonology." (Sagart 1999: 1). Bigarrenez, egoera horri aurre egiteko proposatzen dutelako bide berri batetik abiatzea: "in order to reconstruct Old Chinese phonology, a proper understanding of Old Chinese morphology and word-families is indispensable" (Sagart 1999: 1). Hau da, bi alderdien arteko hartu-eman baten alde egiten dute, kasu honetan gehienbat morfologia zaharrak eskeini datuak (hitz-eraketaren ingurukoak gehienbat: konposizioa, aurrizkitzea, artizkitzea eta atzizkitzea)



### 3.1. Lakarraren (1995) CVC forma kanonikoa

Forma kanonikoaren ezarpen eta azterketak beste hizkuntza batzuen berreraiketetan — batez ere indoeuropearraren eta semitikoarenean, cf. Lakarra (2011)— lortutako emaitza aberatsak ikusirik, Lakarrak, euskarara ekarri nahi izan zuen azterbide hau, AErako erroaren gaineko hipotesia proposatuz. Proposamen honek, aurreko azterketa atomista eta hitzen banakako etimologiaren azalpena alboratu eta hitz-familia eta etimologia-sailak banatu eta berreraikitzea lortzea ez ezik, aurrerago azalduko ditugun aurrerapen eta ondorio inplizitu asko ekarri zizkion AEZ-rako.

#### 3.1.1. Aurreko azterketak

Aurretik, hainbat autore ibiliak ziren morfologia diakronikoaren bideetatik, haien artean Lafon eta Schuchardt ditugu, baina ekarpen baliagarri handirik egin gabe. Hauek 1942ko saio batean Uhlenbeckek euskal erro ereduaren sailkapen bat bideratu zuen; izan diren saio urri eta txiroen artean "luzaz izan dugun euskal erroen sailkapenik osoenetakoa" dela deritzo Lakarrak (2011: 13). Bere sailkapenean erro monosilabiko, bisilabiko eta trisilaboak sartzen ditu, eta zehaztapenak egiten ditu esanaz monosilaboen artean -Cz amaiturikoak direla "askoz ere ugariagoak": *har, gal, hil, lan...* Bisilaboen barnean ere sailkapena egiten duen arren, orokorrean hizkuntzan oso ugariak direla baieztatzen du, trisilaboen presentzia askozaz txikiagoa dela markatuaz.

Mitxelenak, ordea, bere *L&PL*-en erakusten digun bezala, erroaren forma kanonikoaren bidezko berreraiketaren metodo hau ezagutu eta balioesten zuen: "Ejemplo típico de las actividades de reconstrucción proseguidas en el escalón más alto [...] son las investigaciones acerca de la "forma canónica" de morfemas o raíces" (1963: 40). Are gehiago, bazekien fonologiaren berreraiketarako oso erabilgarria izan zitekeela: "su configuración muestra curiosas limitaciones en el semítico común que *delatan las afinidades de los fonemas en el sistema*" (40).

---

fonologiara ekarri eta hortik ondorioztapenak eginez. Guk ere erro teoria den bezalako oinarri morfologiko garrantzitsua izanik, bide hori euskararentzat (batez ere garairik zaharrenetatik berriagoetara gertatu hizkuntzaren bilakabide fonologiko aldetik) benetan emankor gerta daitekeelakoan gaude.

Are gehiago, interesgarri zaigun hirugarren eta azken puntuari begira, Sagart (1999) txinera zaharraren erroa zen CVCtik abiatu zen, "only one intitial consonant per root" (1999: 21) eduki zezakeen erro kanonikotik. Hau aurrizkitzeari begira aztertzen ari zela, txinerarentzat arazotsuena den hasierako C-ren gunean aurreko garairen batean aurrizkitzearen ondorioz sorturiko C-taldeak topatu ziren bertan, batzuetan mantendu eta beste batzuetan aldatuz joango zirenak. Honen haritik, Sagartek erakusten du "there existed in Old Chinese some "phonological" clusters, and some "morphological" clusters" (ibid). Bere hipotesiak, ordea, bi talde hauek bakar batean batuko ditu, eta proposatuko du hitz-hasieran topa daitezkeen fonema guztiek jatorri morfologikoa dutela, hau da, aurrizki baten C-a erroaren lehen C-ari gaineratzean sortu direla, eta ez fonologikoak (erroak bereak dituenak).

Ezagutu eta baliagarri eta emankor iruditu arren, ez zuen euskal erroaren forma kanoniko hertsia bat ezartzearen aldeko ahaleginik egin. Horren ordean, nahiz euskarazko erroen gehiengo bisilaboa zela eta dela baieztatu, eta inork baino askoz etimologia gehiago lortu, mota eta forma askotako ereduak onartu zituen AErako: "aitzinformen artean badira bisilaboak eta monosilaboak eta are polisilaboren bat ere, halaber, V- nahiz C-z hasiak, diptongodunak edo gabeak, silaba irekiz nahiz itxiz bukatuak, ia edozein fonemaren konbinaketa eta ordena... *Fonética Histórica Vascan* ere (batez ere lehen argitalpenean) eta gainerako lanetako *erroarekiko edo morfema mailako erregelekiko ezaxola argia da*" (Lakarra 2011: 11). "Ezaxola" deitzen duen hau bere silaba-egituran ere azaleratu zela esan daiteke. Dakigunez, bere silaba mailako egitura (C)V(W)(R)(S)(T) zen, nahiz eta zehaztu zuen ezin litezkeela aukera guztiak silaba berean gauzatu. Beranduago, Artiagoitiak (1993) murriztapen bat jarri zion, bukaerako -T berankorra zela baieztatuz eta ondorioz AErako alboratuz.

### 3.1.2 Lakarra (1995)

Aurreko datu guzti hauetatik abiatu zen Lakarra CVC erro monosilabikoa proposatu zuenean AErako. Batez ere, aurrekoek zehaztu ez zuten AEn aurki ezin genezakeenean oinarritu zen: "zergatik ote euskara modernoan izan litezkeen 900 TVTVetarik [...] benetan askoz gutxiago lekukotzea eta horietatik guzti-guztiak bi multzotan banatzea? Alegia: (a) maileguak [...] eta (b) eratorri-konposatuak [fonosinbolismoak kanpo]. Zergatik silaba unibertsal bakarria delarik eta horko bokal eta leherkariak sistemako fonema-sailik ugariak?" (Lakarra 2011: 16).

Ezintasun horri gaineratu zion V-, V-, -VV-, CC-, -CC bezalakoak soilik morfema lexikoen ispilu irudia diren morfema gramatikaletan eta fonosinbolismoetan aurki genitzakeela, eta CVC ordea erruz aurki dezakegula euskal lexikoan. Ondorioz, CVC erro-monosilabiko kanonikoaren aldeko apustua egin zuen, aurreko bisilabikotasunaren aldeko usteen kontra. Jada aipatu dugunez, honek berehalako eta ez hain berehalako ondorio garrantzitsuak izan zituen AErako.

### 3.1.3. Forma kanonikoaren ezarpenaren zenbait implikazio

Atal honen barruan CVC aldarrikatzeak AEZrako ekarri dituen ondorio nagusiak labur-labur azalduko ditut, ondoren interesatzen zaigun ondorio fonologikoari sakonago begiratu eta hobeto ulertu ahal izateko beharrezkoa baitzaigu proposamenaren irudi osotua ematea. Azken batean, goian azaldu dugunez, hizkuntzaren alderdi desberdinen inguruan

jakitea interesgarri dakiguke hizpide dugun sistema fonologiko zaharraren berreraiketarako eta honek ondoren jasandako aldaketen eboluzioaz jabetzeko.

### 3.1.3.1. Morfologia zaharra eta hitz-eraketa

Forma kanoniko ahalik eta zehatzena zen honek berehala ekarri zuen hitz-eraketaren inguruko morfologia zaharra azaleratzea. Zenbat eta zehatzago jokatu CVCren eta honen hertsapenen alde, gero eta CVC erro gehiago agertzen joan ziren: *\*bel*, *\*zen*... (Lakarra 1995, 1998).

Gainera, CVC erroa baino zabalagoak zirenak soilik eratorri edo konposatu izan zitezkeela baieztatzeak guretzat beraien zahartasunean berriak ziren hainbat ezaugarri morfologiko agerrarazi zituen: aurrizkitzearen bidezko hitz-eraketa izango zen zaharrenetarikoa (*sa-\*bel*, *la-\*bur*), eta honekin batera garai hartan izandako aurrizkiak agertu ziren. Konposizioaren bidezko hitz-eraketak ere leku zabala zuela ikusi zen (*\*ber-\*din*, *\*har-\*bel*). Bi hauetaz gain, erreduplikazioa ere agertu zen, ezkerretarako eta partziala gehienbat: *zezen*, *gogor*, *ahal* (< *\*nanal*). Azkenik, aurretik ezagutzen eta bereizten ez ziren hainbat atzizki, C-taldeak analizatuaz aurkituak: *hortz* < *\*hor-tz*, etab. Hala ere, esan behar da atzizki hauen agerpena aurrizkiena baino nahiko urriagoa dela.

Datu hauek bisilabismoaren berankortasunaren aldeko argudioak ematen dituztela esan dezakegu, argitu beharra baitugu Lakarrak (1995) proposaturiko erroa eta honek dakarren hizkuntz-egoera ez dela Mitxelenaren (1957) sistema estandarraren garaikidea, zeinetan bisilaboak diren sistemaren oinarri. Alderantziz, Traskek (1997) baieztatu zuenez, CVCaren garaia "a long long long time before" kokatu beharra dugu, eta horren alde egiten dute monosilaboak konbinatuz edota aurrizki edo erreduplikazioen bidez sorturiko hitzen etimologiek. Berrito eutsiko diogu gai honi aurrerago zehaztasun handiagoz.

### 3.1.3.2. Tipologia

Guzti honek berreraikitzea lortu den euskararik zaharrenaren gaineko informazio asko emateaz gain, galdera gehiago planteatzera eraman zuen Lakarra. Jada aurretik euskararen tipologia eransle eta SOV ordenean bitxiak diruditen hainbat irregularitate agertuak ziren, baina azaltzeke ziren oraindik. Haien artean genuen izen-adjektibo ordena, eta baita atzizkien gorakadarekin batera nabari den aurrizkien beherakada, etab (cf. Lakarra 2006), hizkuntza isolatzaileei esleitzen zaizkien ezaugarriak. Irregularitate hauei gehitu behar zitzairen CVC forma kanonikoaren ezarpenaren ondorioz aurkitutakoak: nola liteke euskara den hizkuntza eransle eta atzizkizale baten historiaurrean aurrizkiak aurkitzea? Nola azal liteke holakorik?

Lakarrak tipologia holistikoan topatu zuen honen azalpena. Erantzuna deribaren kontzeptuan eta aldaketa tipologikoan zetzala susmaturik, Donegan & Stampek (2004 eta lehenagoko lanak) munda eta mon-khmer hizkuntzentzat proposaturiko deribaren aldaketa tipologikoan oinarritu eta euskarari aplikatu zion: euskarak mundak bezala, analitiko, aurrizkizale, monosilabo, aditz-komunztadura gabeko izatetik eransletasuneranzko deriba jasango zuen, bisilabo, atzizkizale, aditz-komunztadura aberasdun bihurtuaz.

### *3.1.3.3. Fonologia*

Mitxelenaren 1957ko sistemak, aurreko atal batean jada azaldu bezala, lehen begiratu batean eta fonologiazkoa besterik ez den tresna erabilia ahulgune edota arazoren bat planteatzen badigu, aurreikustekoa da CVCren teoriatik abiatuz askoz zaharragoa den sistema berreraiki nahi izateak oraindik ere arazo eta buruhauste handiagoak eman ditzakeela.

Lakarrak 1995ean bere teoria plazaratu zuenetik azaldu ditugun ekarpen berrietarako atea ireki dizkio apurka-apurka, hizkuntzaren alderdi berriak ukituaz, batzuk beste batzuk baino sakonago; horietarik izan da guk miatuko dugun inbentario fonologikoaren gainekoa.

Lan honetarako bereziki interesgarri iruditzen zaigu Lakarrak proposatu sistema fonologiko zaharra, honen bidez, AEZtik AEMra eta Mitxelenaren sistemara nola hel gintezkeen somatzeaz gain, diakroniak erdigune duen denboraren iragan horretan gertatu ahal izan diren hizkuntzaren hainbat aldaketa postulatu litezkeelako hasiera eta amaierako puntuak zedarrituak izanik. Ez hori bakarrik; ibilbidea marrazteko gai izateaz landa, morfologia dugun tresnari heldurik kontura gaitzkeelako honekin nahikoa izan eta besterik behar ez dugula sistema zahar monosilabikotik Mitxelenaren bisilaborako bilakabidea azaltzeko.

Lakarrak AEZren garai monosilabikorako proposatu sistema funtsean bi ardatzen gainean eraikia da. Lehenengoari begira, lanean zehar agertu dugun bezala, bai Martinetek (1955) eta bai Mitxelenak (1957) proposatu sistemek, karratu eta erronbo itxurakoak hurrenez-hurren, C-rentzat hiru kokagune eskatzen zituzten: hitz-hasierakoa, bokal artekoa edo hitz-barnekoa gehi bukaerakoa. Mitxelenaren sistemak erakusten digunez, erdiko kokagunea da oposaketa gordetzen duen bakarra, edo bestela esan, kokagune horretan agertzen zaizkigu soilik bi sailtako C ahul eta bortitzak. CVC erroaren gainean arreta jarritz, ordea, arin jabetzen gara hemen ez dela hiru kokagune horientzat lekurik, eta C-ak soilik erro-hasieran edo bukaeran ageriko direla.

Ondorio horretatik abiatuz, konturatuko gara erdiko kokagunea delarik CVCrantz galtzen dena, oposaketa duen kokagune bakarra eta honekin oposaketa bera galtzen dugula. Horrek zer uzten digu? Kontrastea galtzeak fonema erdiekin uzten gaituela uste du Lakarrak, Mitxelenaren sistemak hainbeste fonema izatea kontraste honen ondorio zuzena dela. Iduri du horrela dela, Mitxelenaren sistemako fonemak hartu eta kontrastea duten guztiei hau kentzen badiegu, sail oso bat galtzen dugula eta horrek 11 fonemako sistema bat uzten, lehengo 16koaren ordeaz.

Geratzen zaigun 11 fonemako sistema hau "bost leherkari gehi /h/, hiru ozen eta bi txistukari"k (Lakarra 2011: 56) osatuko lukete, eta lehen "ahul" deitu ditugun horiek izango lirakeke, hain zuzen, gorago azaldutako alternantziek hori erakusten baitigute: *gatz / gazi* < \**gaz*. Sistema zahar honetan ez lirakeke ahulak izango, baizik eta markatugabeak edo oinarrizko lirakekeen soilak. Lekukotasun horiek eta jarraian erakutsiko ditugun beste hainbat arrazoik eramaten gaitu pentsatzera bortitzen sorrera AEZ baino berankorragoa dela, eta hori da ondoren defendatuko duguna, morfologiaren bidez bortitzen sorrera eta jatorria azaltzen saiatuaz.

### **3.2. Morfologia bidezko berreraiketarantz:**

#### *3.2.1. Monosilabismotik bisilabismora: bortitzen historiaurreaz*

Behin ikusirik AEZ den garairik zaharrenean bortitzak postulatzeko beharrik ez eta haiek gabe pasa gaitezkeela, uste dugu hurrengo pausua litzatekeela CVC erro-monosilabikoaren garai honetatik Mitxelenaren garai bisilabikora sistema fonologikoan gertaturikoa ikertu eta azaltzea. Horretarako, jada behin eta berriz aipatu dugun bide morfologikora lerratuko gara, erro kanonikoaren aldaketa hartuz sistema fonologikoaren aldaketarako oinarri nagusizat. Argudiatuko duguna da goian tipologiaren atalean erakutsitako mono- > bisilabismorako deriba hau izango dela bortitzen sorreraren pizgarri, eta kontsonanteen arteko talkek sorturiko taldeetarik jaioko direla hauek.

C-taldeei dagokionez, Mitxelenak jada begiak jartzen ditu beraiengan, eta 1961ko lanean aipatu ez ezik deskribatu ere egiten ditu. Bertan, taldeen kokaguneei erreparatzen die lehendabizi, eta konturatzen da "a la inicial [...] en un estado antiguo de la lengua no se admitía ningún grupo de consonantes en esa posición" (343). Hots, hitz-hasieran inolako C-talderik onartzen ez duen arren, euskarak "En final, [...] En el vasco conocido hay además grupos de *n*, *l*, *r* más oclusiva o sibilante en esa posición" (343) eta hitz-barnean ere "son corrientes las combinaciones de (a) sibilante, nasal, *l* y *r* más oclusiva y (b) nasal, *l* y *r* más sibilante" (344).

Hau da, berak beste inork baino lehen aipatzen du euskarak C-taldean kokapenarekiko ere joera bat duela, bortitzen kokapenarekiko duen era berean, soilik hitz-barnean eta hitz-amaieran aurkitzen baititugu. Horretaz gain, azaltzen digu bortitz batzuk maileguetan aurreko beste hizkuntza baten (iberieraren) C-taldeetarik etor litezkeela. Maileguetan ez ezik, ondare zaharreko hitzetara ere ekartzen du azterbidea *FHVn*.

Guk ere hori berori pentsatzen dugu, Lakarrak (2011: 56) dioskun bezala, "hitz barruko bortitz/ahul oposaketa C-talde / C-soil oposaketara eraman ahalko litzateke". Beraz, badirudi benetan sakondu behar dela Mitxelenaren "Grupos de consonantes" kapituluan, bertan hainbat datu benetan interesgarri aurkitzeaz gain, badirelako agian oso garai desberdinetakoak izan litezkeen hainbat bilakabide, azaldu beharrekoak. Adibidez *rtz > st* gertatu zela dion arren, bi motatako datuak ageri dira bertan: *bertze > beste* baina baita *zortzi > \*\*zosti*.

Hurrengo lerroetan Lakarrak proposaturiko azterbideari helduz AEZtik erronborako bilakabideari erreparatuko diogu azalduz bertan nola baliabide morfologiko desberdinen bidez sortu ziren bortitzak.

### 3.2.2. *Eredu aldaketa: AEZtik erronbora*

Gorago aipatu bezala, CVCrentzat egokia den AEZko sistema fonologikotik askoz beranduagokoa den Mitxelenaren erronborako aldaketa monosilabismotik bisilabismorako jauziarekin eta aldaketa tipologikoarekin loturik egon liteke. Hau jorratu baino lehen, kronologiari begiratu bat ematea interesgarri litzatekeela uste dugu, aldaketak ahalik eta zehatzen denboran kokatze aldera.

Hasiera batean Mitxelenaren 1957ko sistema AEZ baino berriago litzatekeen AEMrako baliagarri izan zitekeela proposatu zen arren, Lakarrak gero eta arrazoi gehiago topatu ditu AE baino beranduagoko garairen batean kokatzeko, EBZra edo garai postakitanierara gehiago hurbilduko litzatekeelarik. Hala ere, kronologia zehazten saiatzea litzateke gure ustez hurrengo helburuetariko bat, lan asko baita oraindik egiteko.

Honen alde Mitxelenaren sistemak oinarri duen bisilabismoaren berankortasuna defendatzen du, eta hau egiaztatzeko erabiltzen dituen arrazoiak hona ekartzea luzeegi litzatekeenez, pare bat argudio baino ez dugu aipatuko: goian jada atera eta AErako hautagai bakarrak diren "monosilaboetan etimologia ezezaguneko eta iragazki guztiak gainditzen dituzten erroak bisilabikoetako edozeinenak baino askoz gorago dira" (Lakarra (2011: 28). "Askoz gorago" izateaz landa, ia ez da bisilabo bakar bat ere AEko izateko baldintzak betetzen duenik, gehienak maileguak edo eratorri-konposatu garbiak baitira.

Bestalde, euskara guztiz bisilabo eta eransle diren hizkuntzekin konparatzen badugu, konturatuko gara bere bisilabismotasuna ez dela hurbiletik ere hizkuntza horien mailakoa. Erroen kasuan adibidez (Lakarra 2006), hizkuntza bisilaboetan erro lexikoen %99 dira bisilaboak, eta euskara ez da horretara heltzen, ezta hurrik eman ere.

Euskara historikoko lekukotasunek bisilabismoaren berankortasunaren alde hitz egiten dute. Dakigunez, bada zenbait bilakabide eta lege fonetiko soilik erroaren barnean gertatzen dena, S-en asimilazioa kasurako. Hots, S homorganiko bi erro berean ditugunean, apikariaren aldekoa izaten da asimilazioa: [zin + \*hets-i] > [sinetsi]. Hirugarren txistukari bat ageri balitz errotik kanpo, ordea, hau ez da asimilatzen: *sinetsiz*.

Konposizio zein afijazioaren bidezko hitz-eraketak fosilduz eta analizagabe bihurtuz joaten dira denboran zehar, eta lehen "erro + erro" edo "erro + atzizki" zirenak erro bezala interpretatzen hasten dira hiztunak. Hori da euskaraz ere gertatu dena, kontua da noiztik hona hasi ziren hitz konposatu eta eratorri ziren monosilabo-konbinazioak erro bisilabo soil bilakatzen. Etxeparerengan (1545) aurki dezakegu bisilabismo honen berankortasunaren froga, orainsu azalduriko S-en asimilazioarekin lotua. Autore honek *zinhetsi* idazten du, ez *sinhetsi*, eta, beraz, oraindik XVI. mendean hitz hori erro biz osatua da haren euskaran.

Ondorioz, Lakarraren ustez, bai AEZ eta AEMn monosilabismoa zen nagusi eta askoz beranduago arte, Erdi Arotik hurbilago legokeen garairen batean garatuko zen bisilabismoa.

### 3.2.3. Morfologia bisilabikoak fonologia monosilabikoan eragindakoa: bortitzen sorreraren morfologia bidezko azalpena

AEZak baliabide morfologiko batzuk zituen hitz-eraketarako hitza ezkererantz hazten zutenak (Lakarra 2011): erreduplikazioa (*gor* > *gogor*), aurrizkitzea (*\*bur* → *la-\*bur*); baliabide bi horietaz gain bazen bi erro monosilaboren konposizioa, *harbel* < *\*har-\*bel*. Beranduago, aldaketa tipologikoarekin lotuta dauden arrazoiengatik, hizkuntza atzizkiak eratorpenerako baliabide nagusi bezala erabiltzera lerratzen hasiko zen, eta hitzak atzizkien gehietagatik eskubitara hedatzen: *\*hez* + *-le* > *erle*. Ondorioz, bi garai bereizi behar ditugu bertan: lehenik CVC garai monosilabiko garbia dugu, eta ondoren bisilabismorako bidean doan konposizio eta atzizkiduna.

Guk eskubitarako aldaketa honekin lotzen ditugu jada Mitxelenak esan bezala soilik hitzaren erdialdean eta amaieran agertzen diren C-taldeak eta hauetarik letozkeen bortitzak; konposizioaren eta atzizkitzearen bidez sortu zirela uste dugu, lehenik eta behin C-taldeak emanaz eta ondoren talde horietako batzuek bortitzak sortuaz.

Konposizioari begira, dakigunez CVC erroa beste erro bati gaineratzerakoan,  $cvc + cvc > cvccvc$  emango luke, erdi parteko C-bilkurarekin. Hau litzateke jada goiko *harbelen* kasua. Atzizkitzean, ordea,  $CVCri Cz$  hasten den atzizkia (atzizkien forma kakonikoa -CV izan ohi da, cf. Lakarra 2015-inpr.) eranstea,  $cvc + cv > cvccv$  emango liguke, beste C-talde bat sortuz; bigarren hau litzateke aipaturiko *erle*-ren kasua.

Hala ere, bilkura desberdin hauen emaitzak ez dira beti berberak, bitan banatu beharko genituzke: alde batetik ditugu *harbel* eta *erle* bezalakoak, C-taldea mantenduaz gaur arte eta beste alde batetik, *bele* eta *arrano* modukoak. Hitzok azaltzeko beharrezko dugu  $bele < *bel-*le$ ,  $arrano < *arran-no$  postulatzeari, eta bertan ikusten duguna da C biren bilkurak beranduago bortitza eman duela, bestela, bortitza ez balitz,  $l > r$  jasango baizukeen. Esan dezakegu 2. bilkura mota hauek "ikusezinak" edo direla, bertan bi fonema fusionatu egin baitira bakarria sortu eta aurreko egoerako arrasto zuzenik utzi gabe. Hauek lirateke gehien interesatzen zaizkigunak, gure ustez fonema bortitzen pizgarri eta sorburu direlako. Uste dugu prozesu honen bidez ( $cvc + cvc > cvccvc > cvCvc$  edo  $cvc + cv > cvccv > cvCv$ ) azal genitzakeela *otsoren* ( $*hortz + *-so > *hohtz-so > *ohtso > otso$ ), *atso*-ren ( $*hatz + *-so > *hatso > atso$ ) eta beste hitz askoren bortitzak, morfologia soilaren laguntza erabilita.

Bortitzen sorrera hizkuntzaren morfologiaren bidez azaldu ahal izateak eramaten gaitu ondorioztatzera balitekeela AEZtik Mitxelenaren sistemara gertaturiko aldaketa fonologikoa hizkuntzaren aldaketa tipologikoaren eta honek berarekin dakarren erroaren eta hitz-eraketaren baliabide berrien sorreraren ondorioz gertatzea. Horrela, Sagarten (1999) harira, euskarazko fonema bortitzak txineraz hitz hasieran agertzen direnen antzekoak izango liratekeen talde morfologikoetatik baino ez datozela esan genezake, ez direla fonologia hutsak bultzaturik sortu.

Behin hau azaldu dugularik, bilakabide guzti hauek baino berankorragoa den Mitxelenaren sistemari begira zer suposa zezaketen ikusi nahiko genuke, zer ondorio izan dezakeen bortitzen sorrera honek bertan. Horretaz gain, lanaren hasiera partean aipatu ditugun Mitxelenaren sistemak aurkezten dituen ahulguneen eta hari solteen inguruan argi izpirik jaurtitzerik den jakin nahi dugu.

#### **4. SISTEMA ESTANDARREAN AURKITU AHULGUNEEN INGURUKO BIGARREN GOGOETA**

Azken atal honetan, behin euskararen aldaketa fonologikoa azalduz, uste dugu benetan aberasgarri litzatekeela aurretiaz aipatu Mitxelenaren sistemaren ahulgune edo arazoei berriro begiratzea, ondorio emankorrak izan ditzakeelakoan. Horregatik, saiatuko



gara Lakarraren 1995eko egitura kanonikoak ekarritako ondorio fonologikoak kontuan hartuta eta azaldutako azterbide morfologikoa aintzat hartuz, lehen atalean azaleratu ditugun arazo eta ahulgune horiei azalpen eta zergatia ematen.

#### **4.1. Hitz-hasiera vs. hitz-amaieraren garaikidetasun eza**

Alde honetatik, iruditzen zaigu bi ideia nagusi bereizi beharko liratekeela arazotzat hartu dugun honetan: lehenik bukaerako kokaguneko neutraltzearen osotasun eza genuke R eta S-tan. Bigarrenez, eta aurrekoarekin lotuta, guztizkoa ez den neutraltze horrek planteatzen digun kronologiaren inguruko auzia dugu, bukaerako bortitzaren aldeko neutralizazioa askoz berantiarragoa dela erakusten diguna.

Aurretik azaldu ditugun Lakarraren (1995) egitura kanonikoaren ondorioak lehen ideiarekin lotzean ikusiko dugu R-etako eta S-etako neutraltzearen osotasun eza jada jorratu dugun bukaerako neutraltze orokor horren berankortasunarekin lotua dela. Hots, bortitzen sorrera bera eta honen ondorioz beranduago gertatu bukaerako neutralizazioa hain litzateke berria non oraindik gaur egungo sistema fonologikoan guztiz finkatu gabe legokeen, edo gutxienez aurreko egoerako arrasto garbiak utzi dituen. Hemendik ondoriozta dezakegu Mitxelenaren erronbo-sistema, neutralizazioetan oinarritutakoa, ezin daitekeela inondik inora ere AEkoa izan, eta beranduagoko garairen batean kokatu beharko genukeela, jada hizkuntza bisilaboa den garai batean. Ondorioz, gaur egun zenbait hitzetan aurkitzen ditugun bukaerako fonema ahulak (ikusitako goian adibideetarako) CVC garairik zaharrenean zegoen fonema sail bakarretik heldu zaizkigunak dira, euskarak bai hasieran eta bai bukaeran soilik ahulak zitueneratik. Gure ustez, hauek lirateke hitzaren azken kokapenean oraindik zenbait ahul aurkitzeko arrazoiak.

Bigarren ideia lehenengoarekin lotuta legoke, hasierako eta bukaerako kokaguneeen arteko kronologia desberdintasun hori ere bortitzen sorrera berantiarrarekin lotu beharko litzatekeela uste dugu. Esan dugunez, hitz hasieran neutralizazioaren arrastorik ez dela dirudi, edo beste era batera esanda, "neutralizazio" hau hain da guztizkoa eta betidanikoa. Bukaeran ordea ez dugu horrelakorik aurkitzen, oso bestela baizik.

Horregatik, bi posizioen garaikidetasun eza azaltzeko ere iruditzen zaigu nahikoa dela morfologiaren bidea: bortitzak hitz-eraketaren ondorioz soilik hitzaren erdigunean eta guri interesatzen zaigun bukaerako gunean sortu eta bisilabismoarekin batera ezarri baziren, eta esan badugu bisilabismo hau ez dela AEkoa baizik eta nahiko berankorragoa, hemendik zuzenean ondorioztatzen da hitz-hasierako ahulak baino askoz berankorragoak izan behar

dutela bukaerako bortitz hauek. Honen alde egiten du R eta S-etan oraindik ere bukaerako hainbat ahul mantentzeak.

#### 4.2. Neutralizazioa ote?

Aurreko atalean gai hau jorratzerakoan, ahalik eta modu sendoenean argudiatzen saiatu gara euskararen sistema karratutik erronborako jauzia azaltzeko ez dela neutralizazioaren edo *mergerraren* inolako beharrik. Honen beharrik ez izateaz gain, erakutsi dugu kontzeptuak ez duela gure kasuan funtzionatzen, sistema aldaketa horretan jazotakoa ezin daitekeela inondik inora ere *merger* kontzeptuaren pean bildu. Ondorioz, T-en bilakabidearen azalpenerako ez ezik, beste sail guztietarako ere baliogabetua geratzen da kontzeptua. Hau aintzat hartuta, ikusi nahiko genuke baieztapen berri honek zer nolako eragin eta ondorioak izan ditzakeen, baldin baditu, Mitxelenaren sistemaren planteamenduan, azaldu dugunez, bere sistema neutralizazio kontzeptuaren gainean eraikia baita oso-osoan.

Erro kanonikoren azterbideari eusten badiogu onartu beharko dugu garai monosilabiko zaharrenean euskararen sistema fonologikoa guk aztergai ditugun C-etan (R eta S-etan, herskarietan oposaketa bazegoen eta) C sail bakarraz, markatugabeaz, osaturik zela. Momentu horretatik aurrera morfologia bidezko hizkuntzaren bilakabide fonologikoaren azalbidea kontuan hartze soila nahikoa izango litzateke neutralizaziorik inoiz izan ez dela eta honen beharrik ez dugula baieztatzeko. Hau da, sail fonologiko bakarra izatetik oposaketa eta honek dakartzan bortitzak sortzea hitz-eraketaren morfologiak eta honek ekarritako C-en arteko talkek piztua bada, argi da bikoiztasun hau berriagoa dela, ez betidanikoa. Aurreko momentuan bikoiztasunik ez delarik, ezinezko da neutralizaziorik izatea, hau gertatzeko bi fonema oposatu behar baitira kokagune berean. Fonema horien ordeztu bakar bat baino izan ez badugu eta ondoren sortu bada oposaketa eta bikoiztasuna, neutralizazioa sistemaren euskarri eta erdigune izatea guztiz baliogabetua geratzen dela iruditzen zaigu.

Zehatzago azalduaz hobeto ulertuko delakoan gaude. T-ak oraingo honetan ere alde batera utziko ditugu, gainerako C sailekiko desberdin jokatzen baitute. R eta S-ei begira, egitura kanonikoarekin batera onartu dugu garai monosilabikorik zaharrenean bai hitz hasieran eta bai bukaeran fonema bakarra ageri zitzaigula. Beranduago, oposaketa hitzaren erdialdean (baldintza batzuekin) sortzen hasiko zen bisilabismoarekin batera, eta gune horretan eta ondoren bukaeran garatuko ziren fonema bortitzak. Hala ere, oposaketa horiek bi kokagune horietan sortu arren, hitz hasierako posizioak gorde egin zuen egoera zaharraren isla, eta mantendu egin zen C modu bakarra bertan. Honek zer dakar gure gaiari

dagokionez? Nahikoa dela bilakabide diakronikoarentzat azaltzea nola oposaketak sortzen joan diren, eta funtsean, garairik zaharrenean bikoiztasunaren arrastorik ez izanda, nola izan sisteman neutralizaziorik? Ez hori bakarrik, neutralizazioaren beharrik ez badugu, nola oinarrituko garai bateko hizkuntzaren sistema baliogabeturik geratu den kontzeptu baten gainean?

Mitxelenaren sistema neutralizazio-modu eta puntu berdinen bateratasunean oinarritzen da, eta neutralizazio puntu hauek hitz hasierakoa eta bukaerakoa dira. Bi kokagune hauei banan-bana so eginaz, azaldu ditugun zergatien ondorioz, hitz hasierako neutralizaziorik ez da inoiz izan, eta bukaerakoa ordea, hain da berria (edo osatugabea) non aurreko bikoiztasun egoera oraindik gaurko euskararen antzematen den. Honek eramaten gaitu baieztatzera neutralizazioa baliogabeturik geratzen dela Mitxelenaren sistemaren oinarri bezala eta, gainera, ez dela kokaguneetan garaikidea ere (ikusi 6, 7, 8. orr.-ak), eta ondorioz, ezinezko litzatekeela neutralizazio guztiak aldi berean eta modu homogeneoan batzen dituen sistema bakarra aldarrikatzea.

Berreraiketaren izaera minimalistak ere noranzko honetan bultzatzen gaitu: Mitxelenak berak —eta hizkuntzalaritza diakroniko estandarrak— aitortu bezala, ez da berreraiki behar aurreko egoera eta ondorengo bilakabidea azaltzeko ezinbesteko ez den ezer. Gure kasuan neutralizazioaren beharrik gabe euskararen sistema fonologikoaren bilakabidea azaltzeko gai garen aldetik, uste dugu zilegi dela kontzeptu hau baztertzea eta soilik bide morfologikoari heltzea.

Gure helburua ez da Mitxelenaren sistema suntsitzea, ezta hurrik ere, frogaturik geratu baita urteetan zehar ez dela hoberik izan, eta aurrerapen erraldoia suposatu izan duelako gure hizkuntzaren diakronia fonologikoan. Estandartzat hartu izan den sistema hau hobetu ahal izateko ahalegin bat bultzatzea baino ez dugu helburu, ahulguneren bat topatu nahirik eta honi azalpena emanaz. Argi utzi behar dugu Mitxelenaren sistemak ondo funtzionatu duela eta ondo funtzionatzen, eta bere planteamenduaren aldaketatxo bat saiatzea baino ez dela guk proposatzen duguna, sistema berberari beste begi batzuekin begiratzea eta ikuspuntu berri baten bidez ea azalpen asegarriago bat eman dezakegun ikustea.

### **4.3. Kontsonante sailen arteko oposaketa berdina izateko oso desberdinak dira oposaketa-motak beraien artean.**

Aurreko atalean azaldu dugunez, Mitxelenak bere sistemaren batasunaren froga bezala eta honen oinarrirako proposatzen duen fortis/lenis sailen arteko oposaketa, artikulazio gogor/bigun baten bidez azaleratzen dena, fonetikaren ikuspuntutik begiraturik

nahiko lausoa litzateke. Izan ere, oposaketa-motak desberdinak dira C-moten artean: T-ek hasperenean oinarriturikoa dute, R-ek luzeran, S-ek hersketan... Ondorioz, Mitxelenari homogeneo iruditzen zitzaion sistemaren oposaketa hori hain perfektua eta bateratua ez dela argudiatu dugu, eta balitekeela C mota bakoitzak bere bidetik aurrera egin izana, oinarri fonologiko berberaren esanetara egon gabe.

Oraingoan, C-sailen oposaketa desberdinen eta haien arteko batasun ezaren zergatiak bilatu nahi genituzke, ikuspuntu berriaren bidez azaltzea posible iruditzen baitzaigu. Esan bezala, oposaketaren sorrera (herskariak alde batera utzirik) C bortitzen sorrerarekin estuki loturik dago, eta bortitz hauek morfologikoak ziren taldeetarik datozela ikusi dugu. Hau kontuan izanik, ez litzateke logikoa proposatzea sistema osoa oinarri fonologiko berberaren gainean eraikia izan dela; esan bezala, fusionatu diren talde batzuetatik baino ez baitira sortu C bortitzak *bele* edo *otsoren* kasuan, beste talde askotatik, demagun *erle*, ez da bortitzik sortu eta taldea mantendu da.

Honekin esan nahi dugu ez dela inolako batasunik sisteman oposaketaren aldetik: C bakoitzak hitz-eraketan sorturiko bere C-taldean konbinazioaren arabera ondoren talde "ikustezin" bilakatu zen bortitza eman du edo ez. Hau da, ez da oinarri homogeneorik C guztien oposaketa-moten artean, bakoitzak bere aldetik eman ditu bortitzak, taldeek jasandako bilakabide fonetikoaren arabera. Ozenen kasuan C taldeek bortitz luzeago bat eman dute, S-etan, ordea, bi S elkartzerakoan hersketa sartzea izan da jazotako bilakabide fonetikoa, etab.

Ondorioz, azalbide morfologikoa kontuan harturik, esan behar dugu euskaraz bi C-sail oposatu izan diren arren, ez direla oposaketa guztiak oinarri beraren inguruan antolatu, ez direla denak ahoskera bigun/gogor baten isla, baizik eta C-mota bakoitza beregaina dela bortitz hauen garapenean eta ondorioz oposaketa-mota ere beregaina dela haietariko bakoitzean.

Azkenik, iruditzen zaigu ahoskera bigun/gogor batean oinarritzen dela esatea orokortze bezala eta urrunetik begiratuta onargarria izan litekeela Mitxelenaren ikuspegitik, baina ez guretik, argi izan behar baitugu une oro jatorrian oposaketa soil/talde litzatekeela eta talde horiek morfologian baino ez dutela topatzen sorrera eta zergatia.

Honek argi uzten digu (T-ek), S-ek eta R-ek bakoitzak bere aldetik egin dutela bidea, eta beraien arteko ezaugarri amankomun bakarra litzateke oposaketa dutela bi sailen artean, besterik ez. Oraingo honek erakusten digu, aurretik esan bezala, Mitxelenaren sistemaren batasuna oso hari mehe batetik zintzilik egotea ez ezik, hari hori fonologikoa ote den ere zalantzan jar daitekeela, oposaketa-mota desberdinak ezin baitira garapen fonologiko

berdinaren bidez azaldu, baizik eta talde morfologiko bakoitzaren emaitza desberdinen araberakoez. Morfologia daukagu honen atzean, eta euskararen sistema fonologikoa printzipio bakar batean inguruan antolatzeko inolako beharrik ez izatea gutxi balitz, orain gainera baditugu batasun fonologiko honen baieztapenaren kontrako frogak.

## 5. ONDORIOAK

Gure lanaren azken atal honetan, egindako gogoetetatik ateratako ondorioak laburtu nahi genituzke. Horretaz gain, egoki iruditu zaigu jorraturiko bideak eta horien fruituek ekar ditzaketan etekinei begiratzea, ea morfologia bidezko azalbide honek zer eduki zezakeen esateko Mitxelenaren sisteman eta honen historiaurrearen garapenean. Azkenik, labur bada ere, alorraren etorkizunerako eginkizun diren gai zenbaitez hitz egin nahi genuke.

Dakigunez, ardatzetako bat izan dugu Mitxelenaren sistema bera eta honen inguruan aurkituriko hainbat arazo. Banan-bana eta modu argian ekarri nahi genituzke hona lanaren fruituak bildu eta hauen irudi bateratuago bat eratu ahal izateko.

1.1. atalean aurkeztutakoari begiratu, argudiatu dugu Mitxelenak berak erakusten dizkigun hainbat alternantziek eta txistukariez eta dardarkariez ditugun hainbat lekukotasunek dioskula bukaerako kokaguneko neutraltzea hasierakoa baino askozaz berriagoa dela, ez garaikidea. Ez hori bakarrik, bi kokaguneeen arteko garaikidetasun falta sistemaren barruko C-sail desberdinetara hedatzen dela erakutsi dugulakoan gaude (ikus 8. orr-ko azken paragrafo biak), dardarkarrietan bukaerako fortisaren aldeko neutralizazioa osagabeagoa eta ondorioz txistukariena baino berriagoa dela.

Behin bortitzen sorrera berankorra bisilabismorako bidearekin lotuta azaldu dugularik, uste dugu aurrekoaren harira gai garela esateko Mitxelenaren fortisdun sistema ezin daitekeela AEkoa izan, baizik eta beranduagokoa. Horretaz gain, hasierako neutralizaziorik inoiz izan ez dela aldarrika dezakegu, soil-soilik bertan AEZtik datozkigun markatugabe/ahulak mantendu direla gaur arte. Azkenik, morfologia bidezko bortitzen sorreraren proposamenak laguntzen digu bi kokaguneetako neutralizazioen garaikidetasun ezaren azalpenean (ikus 26. or.): zentzuzkoa da oraindik bukaerako neutralizazio aurreko arrastoak topatzea, kokagune honetako fortisen sorrera bera berankorra baita, eta ondorioz are modernoagoa oposaketa sortu ondoren gertaturiko bortitzaren aldeko neutraltzea.

Bestalde, dardarkarrietan bukaerako neutraltzea osatugabeagoa eta berankorragoa izateak zirrikitu bat irekitzen du Mitxelenaren sisteman, kronologia aldetik ezinezko bihurtzen duelako neutraltze guztiak garai berean osaturik zituen sistema bateratu bat izatea.

Alde honetatik ere sistemaren barruko C-sail desberdinek denboran izandako bilakabide desberdinei zehaztasun handiagoz begiratu beharko zaiela uste dugu.

Bigarren arazoari dagokionez, Campbellen (1998) bidetik "neutralizazio" kontzeptuan sakondu eta bertan bi aldi desberdinu beharra erakutsi dugu (10. orr-ko azken §). Lehenengoan ( $b, th > b [+h/]$ ) *mergerrik* ez dela frogatu dugu, unitate kopuru berarekin jarraitzen baitu euskarak, eta ez direlako T bortitzak "desagertu". Azkenik, neutralizaziorik izatekotan soilik 2. urratsean legokeela (latinezko maileguetan hotsa ahostun nahiz ahoskabe izan euskaraz biak lenisarekin ordezkatzean) defendatu dugu. Ondorioz, kontzeptuak diakronikoki funtzionatzen ez duela eta erronbo sistemaren sorreran inolako *mergerren* beharrik ez dela proposatu dugu.

Mitxelenaren sistema neutralizazioan oinarritua izateak, eta guk kontzeptu hori deseginak sistemarako oso ondorio larriak izan ditzakeela badakigu, eta horiek norainokoak izan daitezkeen ikusi nahi izan dugu. Berrito ere, fortisen sorrera morfologiaren bidez azaltzerakoan, konturatu gara azalbide hori bera nahikoa dela AEZtik Mitxelenaren erronbo sistemara heltzeko (ikus 28. orr, 2.§); eratorpenaren ondorioz sortu C-talkek bortitz guztien kokapenak azaltzen dituzte. Oposaketa eta bikoiztasuna berria den aldetik, nola izango zen neutralizaziorik bikoiztasunik gabeko aurreko garaian? Hau kontuan hartuta, Mitxelenaren oinarri nagusia den neutraltzearen kontzeptua baliogabetzearen aldeko apustua egin dugu, jada ez dugulako horren beharrik sistemara nola heldu azaltzeko eta gainera berreraiketak berak horretara bultzatzen baikaitu. Dakigunez, eta behin eta berriz errepikatu dugunez, ez da berreraiki behar bilakabidearen azalpenerako guztiz beharrezko ez den ezer.

Sistema estandarrari dagokionez, sumatu 3. ahulgunearen inguruan, ikusi dugu ikuspuntu fonologiko batetik sistemaren oposaketa bateratuari begira jartzerakoan homogeneotasun falta bat nabari dela C sail desberdinen artean. Mitxelenaren "articulación tensa/laxa"n oinarritu oposaketa oso abstraktua dela erakutsi dugu, T, S eta R-etan oposaketa-moduak oso desberdinak baitira: hasperenketa, hersketa eta luzeera hurrenez-hurren (ikus 12.orr-ko azken § eta 13.orr.). Horregatik, Mitxelenaren batasunaren froga litzatekeen oposaketa onartu arren, ez dugu onartzen oposaketa hori C-sail guztietan bat eta bera denik.

Bortitzak soilik "ikusezin" bilakatu diren talde horietatik datozela kontuan hartuz, defendatu dugu C-sail bakoitzaren oposaketa desberdina (jatorrian soil/talde izango zena) jatorrizko talde horien konbinaketek ekarritako emaitza desberdinen bilakabide fonetikoek sortua dela. Hau horrela izanik, azalduerik geratzen da oposaketa-mota anitzen zergatia: C-mota bakoitza beregaina izanik bortitzen garapenean, haietariko bakoitzak garatu duen

oposaketa ere guztiz beregaina izango da. Hemendik baieztatu dezakegu bai R-ek eta bai S-ek bakoitzak bere bidetik egin dutela, bateratasun fonologikoaren esanetara ibili gabe.

Gogoeta guzti hauen sintesi bezala, esan genezake sistema estandarren bateratasuna hari batetik zintzilik egon daitekeela, eta are gehiago, sistema lotzen duen hari mehe hori ez dela fonologikoa. Neutralizazioaren alboratze honek ondorio larriak ditu hizkuntzaren historiaurrearen bilakabidean eta orain inoiz baino argiago geratzen da fortis/lenis sistemaren historiaurrea ikertzearen beharra eta garrantzia.

Ikusi dugu fonologia bidezko berreraiketa nahikoa ez dela eta itsutzeko eta aurrerago jotzeko ezintasunera eramán gaitzakeela. Kasu honetan, morfologiaren laguntza eta aldaketa tipologikoaren proposamena guztiz beharrezko gertatu da barneko posizioa izango dena sortzeko eta ondoren bertatik jaioko diren bortitzen garapena azaltzeko. Mitxelenaren "susmoa" zena (bortitzak taldeetarik datozela) azterketa berriaren oinarritzat hartuz, hizkuntzaren bilakabide fonologikoan aurrerapausoak egin daitezkeela uste dugu.

Taldeak kokapenari begira, eta nahiz eta lanean zehar joratu ez dugun, derrigorrezko iruditzen zaigu bukaerako fortizioaren inguruko pare bat hitz esatea. Baliteke taldeak eta bortitzak erdialdean sortu eta ondoren bukaerara hedatzea (alternantziek honen alde hitz egiten digute); iduri du *\_C* eta *\_#* kokapenak estuki loturik direla, kokagune horietan baino ez baititugu aurkitzen denbora igaro ahala gehituaz joan diren bortitzak. Ikusi beharko litzateke bukaerako fortizio hau kronologikoki non kokatu behar genukeen eta nondik etor daitekeen.

Etorkizunerako oraindik egiteko asko dela esango genuke. Gure gaiari begira, lehenik eta behin, Mitxelenaren sistema eguneratu daitekeelakoan gaude, kronologikoki hobeto kokatzen saiatu eta arazoak konpontze aldera birplanteatu liteke. Monosilabismotik bisilabismorako bidean ere (noiz, nola, zergatik) asko da sakontzeko, baita fortisen taldeetarikoko sorreraren inguruan. Hari solteak nahi adina ageri diren aldetik, haietatik tiratzen jarraitu beharko, beti pausotxo bat urrunago heltzeko esperantzan.

## 6. BIBLIOGRAFIA

- Baxter, W.H. & Sagart, L., 2014, *Old Chinese. A new reconstruction*. New York: Oxford U.P.
- Campbell, L., 1998, *Historical Linguistics. An introduction*, Cambridge: MIT.
- Lakarra, J.A., 1995, "Reconstructing the root in Pre-Proto-Basque" in J.I. Hualde, J.A. Lakarra & L. Trask (arg.), *Towards a history of Basque Language*, John Benjamins: Amsterdam-Philadelphia, 189-206.
- \_\_\_, 2006, "Protovasco, munda y otros: reconstrucción interna y tipología holística diacrónica", *Oihenart* 21, 229-322.
- \_\_\_, 2009, "Aitzineuskara berreraikiaz: Zergatik ezkerria?", *Euskera* 54, 17-98.
- \_\_\_, 2011, "Erro monosilabikoaren teoria eta aitzineuskararen berreraiketa: zenbait alderdi eta ondorio", *FLV* 113, 5-114.
- \_\_\_, 2014, "Gogoetak euskal dialektologia diakronikoaz: euskara batu zaharra berreraiki beharraz eta haren banaketaren ikerketaz", In I. Epelde (arg.), *Euskal dialektologia: lehena eta oraina*, ASJU-ren Gehigarriak LXIX, UPV/EHU: 155-241.
- \_\_\_, 2015-arg., "CVC > CV: gramatikalizazioa eta berreraiketa". Omenaldi liburu batean ateratzeko.
- Martinet, A., 1950, "De la sonorisation des occlusives initiales en Basque", *Word* 6, 224-232.
- Mitxelena, K., 1957, "Las antiguas consonantes vascas". Berrarg., *SHLV*.
- \_\_\_, 1961/1977, *Fonética Histórica Vasca*. Gipuzkoako Diputazioa: Donostia.
- \_\_\_, 1963, *Lenguas y Protolenguas*, Salamanca: Ediciones Universidad de Salamanca.
- Sagart, L., 1999, *The roots of Old Chinese*. Amsterdam and Philadelphia: John Benjamin's.
- \_\_\_, 2011, *Luis Michelena. Obras Completas*, J.A. Lakarra & I. Ruiz Arzalluz (arg.), ASJU-ren gehigarriak, 15 liburuki, Bilbo-Donostia.